



## **14. AKTA**

2003ko azaroaren 20an ospatutako **GOBERNU BATZORDEA**.

TOPKIA: Pasaiako Hirian eta bertako Udaletxean.

DATA: hiru mila eta hiruko azaroaren hogeian.

ETORRIAK.

Lore Suárez Linazasoro a.  
Lucía Querido Noceti a.  
Jesús M<sup>a</sup> García Garde j.  
Xabier Pombo González j.

Lehendakaria :

Izaskun Gómez Cermeño Alkate andrea.

Lehenengo deialdian eta Izaskun Gómez Cermeño Alkate andrearen lehendakaritzapean, goian aipatutako zinegotziak bildu dira Joseba Belaustegi Cuesta Idazkari Behin-behinekoa bertan delarik, horretarako kurtsatutako deialdiaren arabera Gobernu Batzordea ospatzeko.

Lehendakaritzak konstataturik behar hainbat partaide bildu dela Gobernu Batzordea ospatzeko, batzarraldia irekitzat eman du 9:00etan, ondoren Gaizerrendako puntuak aztertzeari.

### **1.- Aurreko ohiko batzarraldietako aktak, 12 eta 13.a, hurrenez hurren 03-10-22 eta 03-11-11etakoak, irakurri eta onartzea.**

Bertakoen kontsiderazioan jarririk atalburuan aipatzen diren aktak, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez erabaki du beren osoan ontzat eman eta dagokien Akta-liburuan transkribatzea.

### **2.- 10/03 zka. daraman kontu-fakturen zerrenda.**

Gobernu Batzordeak erabaki du ontzat ematea 10/03 zka. daraman kontu-fakturen zerrenda, EHUN ETA BERROGEITA ZAZPI MILA EHUN ETA HIRUROGEITA BI EURO ETA SEI ZENTIMOKO (147.162,06 euro) kantitatez.

### **3.- Ikastetxeei subentzioak. 2003ko lehen semestrea.**



Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez eta Kultura eta Hezkuntzako Zinegotzi Delegatuak 2003ko irailaren 25ean egindako proposamenez,

## ERABAKI DU

LEHENENGO.- Ontzat ematea ondoren aipatzen diren ikastetxeei dagokien 2003ko 1. semestreko subentzioa:

- KARMENGO AMA H.I.	33.932,09 euro
- KARMENGOTARRAK.	
GURASO ELKARTEA	4.798,03 euro
- PASAIA-LEZO LIZEOA	16.364,16 euro
<b>GUZTIRA</b>	<b>55.094,28 euro</b>

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko 05-481-422-00-01 partida eta A-1182/03 Baimenduaren kargura.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekurtsioekin.

### **4.- Euskara ikasten ari diren pasaitarrei subentzioak.**

Euskararen Udal Batzorde Informatiboaren andre lehendakariak 2003ko irailaren 30ean proposaturik eta 1922ko ekainaren 1ean Gobernu Batzordeak hartutako erabakia beteaz, zeinen bidez onartu baitziren aipatu subentzioak emateko kriterioak, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

## ERABAKI DU

LEHENENGO.- Euskara ikasten ari diren pasaitarrei ondoren aipatzen diren subentzioak ematea:

GARCIA OTXAGABIA, MARTA	116,25 euro
GARCIA OTXAGABIA, MARTA	276,25 euro
GARCIA OTXAGABIA, MARTA	32,50 euro
IZURIETA NORES, MONIKA	81,25 euro
<b>GUZTIRA</b>	<b>506,25 euro</b>

=====

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekurtsioekin.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1254/03 Baimenduaren kargura.

### **5.- 2003ko Gabon Gastuetarako dirua aurreratzea zinegotzi delegatuei.**

Gabon Jaiak gertu daudelarik eta barrutietako Jai Batzordeek beren jarduerak bultzatzen, azken urteotan egin ohi den bezala, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez eta Alkateak 2003ko azaroaren 10ean egindako proposamenez,



## ERABAKI DU

Donibane, San Pedro, Trintxerpe eta Antxoko barrutietako Jai Batzordeei bakoitzari 810 euroko subentzioa ematea Gabon jaietan ospakizunak zelebratu ahal izateko.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1256/03 Baimenduaren kargura.

### **6.- Aisialdiko taldeei subentzioak ematea Gabonetako Haurren Jairako.**

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez eta Gazteria eta Kirolen Zinegotzi Delegatuaren proposamenez,

## ERABAKI DU

LEHENENGO.- Ondoren aipatzen diren aisialdiko taldeei hurrengo subentzioak ematea 2003ko Gabonetako Haurren Jaialdirako:

- TXIMISTA	1.436,24 euro
- EKAITZA	1.089,27 euro
- BOVEDA	1.089,27 euro
- IÑALKIÑE (ABARASKA)	999,12 euro
- TXIKI TXOKO	999,12 euro
- KANTAURI LUDIKO	
ELKARTEA	1.436,24 euro

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko 07-481-456-20-03 gazte taldeen partida eta A-1217/03 Baimenduaren kargura.

Kantitate hauek abenduaren 15a baino lehenago abonatu beharko dira Jaia ospatu ahal izateko.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekurtsoekin.

### **7.- Manuel Azurmendi kaleko 15ean hondakinak kentzeko eskaera.**

Angel M<sup>a</sup> Ansola Alberdik, Eusko Auto, S.L. enpresaren izenean, 2003ko urriaren 2an lizentzia eskatu du San Markos 32ko Pabinsa eraikinean lokal bateko hondakinak kentzeko.

Urriaren 14an Hirigintzako Zinegotzi delegatuak espedientea ireki zuen hirigintz legetasuna berriro ezarrarazteko Angel M<sup>a</sup> Ansola Alberdi Eusko Auto, S.L. enpresako ordezkariaren aurka obrak egiteko arauzko lizentziarik gabe obrei ekiteagatik. Udaltzaingoaren obra-kontrolaren aktak dioenez obrak oso aurreratua daude trenkada berriak eginda daudelako eta baita instalazioak ere eta ebakutzeko eskaileraren egitura eta, ondorioz, ez da beharrezkoa hondakinak kentzeko lizentzia.



Udal Aparejadoreak kontrako txostena luzatu du urriaren 16an.

Kontuan izanik Euskal Herriko Ingurunea Babesteko 3/1998 Lege Orokorreko 61.1 artikulua.

Kontuan izanik Gobernu Batzordea kompetentea dela espediente hau erabakitzeko 2003ko ekainaren 19ko Alkatzaren ebazpenez, zinegotzien aho batez

## ERABAKI DU

LEHENENGO.- EUSKO AUTO, S.L. enpresaren ordezkaria den ANGEL M<sup>a</sup> ANSOLA ALBERDIri hondakinak kentzeko lizentzia ukatzea zeren eta aipatu obrak amaituak daudelako eta jarduera eta obren lizentzia emanez gero legalizatuak izango bailirateke.

BIGARREN.- Jakinaraztea Euskal Herriko Ingurunea Babesteko 3/1998 Lege Orokorreko 61.1 artikulua arabera Udalak ezin duela obra-lizentzia eman aurrez jarduera-lizentzia ez badu lortu.

HIRUGARREN.- Jakinaraztea obrak paralizatzeko emandako 2003ko 14ko dekretuak indarrean jarraitzen duela.

### **8.- Zigor espedientearo ekitea.**

Espediente honek babestu behar diren datu pertsonalak ditu.

### **9.- Ondare erantzukizunaz hainbat erreklamazio.**

Gai hau mahai gainean geratzen da.

- Gaizerrendaz at eta bertako zinegotzien aho batez bertan sartzea aurrez erabakirik, ondorengo akordioak hartu dira:

### **10.- Udalaren menpeko Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoak. 5/03 zka. daraman proposamena.**

Ikusirik Gizarte Zerbitzuen Arduradunak 2003ko azaroaren 18an egindako proposamena eta Udalaren menpeko Gizarte Larrialdiko onuradunen zerrenda, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ONTZAT EMATEA espedientean aipatzen diren Onuradunen laguntzak 2.230,77 euroko kantitatez.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1322/03 Baimenduaren kargura.

**11.- Eusko Jaurlaritzaren menpeko Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoak. 4/03 zka. daraman proposamena.**

Ikusirik Gizarte Zerbitzuen Arduradunak 2003ko azaroaren 18an egindako proposamena eta Eusko Jaurlaritzaren menpeko Gizarte Larrialdiko onuradunen zerrenda, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ONTZAT EMATEA espedientearen aipatzen diren Onuradunen laguntzak 3.558,00 euroko kantitatez.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1321/03 Baimenduaren klargura.

**12.- Uda 2003 subentzioa**

Ikusirik 2003ko azaroaren 17ko Gazteria eta Kiroletako Zinegotzi Delegatuaren proposamena, Gobernu Batzordeak, zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Jarraian aipatzen diren Entitateei eta Kirol Elkarteei UDA 2003 kanpainari dagokion dirulaguntzak ematea:

ENTITATEA/KIROL ELKARTEA	BEHIN BETIKO LAGUNTZA	KAPITULUA / PARTIDA
<b>KOXTAPE</b>	2562-732 = <b>1.830,000 Euro</b>	IV/Kirol Elkarteak 06.481.452.10.01
<b>C.A.T.</b>	2160-691,328 = <b>1.468,672 Euro</b>	IV/Kirol Elkarteak 06.481.452.10.01

ENTITATEA/KIROL ELKARTEA	BEHIN BETIKO LAGUNTZA	KAPITULUA / PARTIDA
<b>POLIDEPORTIVO DE DONIBANE-DONIBANE ESKUBALOIA</b>	<b>54 Euro</b>	II/ Berezko jarduerak 06.226.452.10.99
<b>COMPLEJO DEPORTIVO ANDONAEGI-CA ILLUNBE</b>	<b>48 Euro</b>	II/ Berezko jarduerak 06.226.452.10.99

Hori guztia indarreango udal aurrekontuko A-1325/03 eta A-1326/03 Baimenduaren kargura.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekurtsioekin.

**13.- Oarsoladeari subentzioa Eskolako Kirolaren 2002-2003 ikasturteko “Kirola Euskaraz” programarako.**

Gazteria eta Kirolen Batzordeko Andre Lehendakariak 2003ko urriaren 15ean egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

## ERABAKI DU

LEHENENGO.- “Kirola Euskaraz” Eskolako kirolaren 2002-2003ko ikasturteko programarako Oarsoaldeko Eskualde mahaiari 876 euroko subentzioa abonatzea indarreango udal aurrekontuko 2003 Eskola Kirola 0600.481.452.10.02 partida eta A-1327/03 Baimenduaren kargura.

BIGARREN.- Aipatu kantitatea Oarsoladeko Euskararen Batzordearen kontura pasatzea (KUTXA 2101 0060 00 0010693141).

HIRUGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkioken errekurtsoekin.

### **14.- 5. Ziuertagiria: Trintxerpeko Azkuene-Ulia-Erreterria Eremuari dagokion Urbanizazioko obraren Segurtasun eta Osasun eta Kalitate Kontrolari buruzkoa.**

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziuertagiria:

Zka. 5.

Obra: Trintxerpeko “Azkuene- Ulia-Erreterria Arearen Urbanizazioa” obraren Segurtasun eta Osasunaren gehi Kalitate Kontrolaren 5. ziuertagiria.

Obra Zuzendariak: Iñaki Ormazábal J. (Udal Arkitektoa) eta Jose M<sup>a</sup> Irazusta J. (Udal Aparejadoea).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: ZORTZI MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA BEDERATZI EURO LAUROGEITA BEDERATZI ZENTIMO (8.369,89 Euro).

Indarreango udal aurrekontuko 728/03 Disposamenduaren kargura.

### **15.- Trintxerpeko “Azkuene-Ulia Erreterria Arearen Urbanizazioa” obraren 5. Ziuertagiria.**

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziuertagiria:

Zka. 5.

Obra: Trintxerpeko “Azkuene- Ulia-Erreterria Arearen Urbanizazioa” obraren 5. ziuertagiria.

Obra Zuzendariak: Iñaki Ormazabal J. (Udal Arkitektoa) eta Jose M<sup>a</sup> Irazusta J. (Udal Aparejadoea).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: EHUN ETA HOGETA BI MILA BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA SEI EURO ETA LAUROGEITA HEMEZORTZI ZENTIMO (122.946,98 Euro).

Indarreango udal aurrekontuko 369/03 Disposamenduaren kargura.



Eta aztertzeko beste gairik ezean, 10:00etan, batzarraldia amaitutzat eman da, honen eduki guztia akta honetan jasoz, hau andre Alkateak eta nik, Idazkari bezala ziurtatuz, sinatu dugularik.